



HILERRI ETA HILETA ZERBITZUENGATIKO TASEN ORDENANTZA FISCAL ARAUTZAILEA

I. Ordainerazpenaren xedea

1. artikulua

Turtziozko Udalak, hala hileta zerbitzuetan nola udal Hilerrien barruko zerbitzuen erabileran ematen dituen zerbitzuak dira Ordenantza honek araututako ordainerazgai.

Subjektu pasiboak

2. artikulua

1. Zergduru gisa, Hilerri eta Hileta zerbitzuengatiko tasaren subjektu pasiboak, Ordenantza honek arauturiko udal iharduera zein zerbitzuek ukituriko edo hauen hobaridun edo hauek eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoa, eta Bizkaiko Tributu Foru Arau Orokorren 33. artikulua zehazturiko entitateak dira.

2. Iharduera administratiboa edo zerbitzua subjektu pasiboari dagokiola edo hark hau ukitzen duela, subjektu pasiboaren iharduera edo alderauzketaren ondorioz, zuzen zein zeharka, segurtasun, osasunkortasun zein hirigintz arloko zioak direla eta Udalak iharduerak edo zerbitzuak ofizioz burutu behar duenean ulertuko da.

Salbuespenak

3. artikulua

Ongintza – Erroldan izenemandakoei egindako hilerri eta hileta zerbitzuak salbuestsirik geratuko dira. Kasu hauetako zerbitzuek gutxienezko izaera izango dute. *Oinarri ezargarría*

4. artikulua

1. Udal hilerriko hileta emakidaren bat erabiltzeko aukeraizango dute honako hauek:

a) Hiltzean udalerrian erroldatuta dauden pertsona guztiek baldin eta hil aurreko bi urteetan administrazio-bizitegia udalerrian izan badute; bi urtetik beherako haurrek eskubide hori izango dute, baina azken baldintza horretatik salbuetsita geratzen dira.

b) Euren bizitzan zehar 10 urtetik gora erroldatuta egon diren pertsona guztiek.

c) Udalerrian jaio diren pertsona guztiek.

d) Ezkontideek, egitatezko bikoteek eta pertsona horien semealabek baldin eta azaldutako baldintzak betetzen ez badituzte eta eskubidearen titularra den ezkontide, aita edo amaren hileta emakida berean lurperatzen badira, edo, aurretik baimenduz gero, titular horren familiak duen beste edozeinetan. Salbuespen gisa, hileta emakida berria eman daiteke honako kasuetan: ezkontidea edo semealabaren bat lehenago hiltzen direnean edo gorpuzkinak erretzeko behar den denbora igaro ez denean. Hala ere, kasuotan ahalik eta lasterren familia osoa emakida bakarrean bildu beharko da.

2. Udal Hilerriko hileta emakidaren bat erabili ahal izango dute 1. puntuan ezarritako baldintzak betetzeaz gain, hileta eskubidea eskuratzen duten pertsona guztiek, beti ero, 1. puntuan aipatutakoekin ahaidetasun-harremanik badute».



Sortzapena

5. artikulua

Egitate ezargarria den udal iharduera edo zerbitzua ematea Tasa eta ordaintzeko erantzunbeharra sortzen dira. Ondorio hauetarako zerbitzu edo iharduera hasitzat joko da Turtziozko udalean zerbitzuak emateko eskakizuna aurkezten den egunean.

VI. Kudeaketa, epeak eta ordainketa erak

6. artikulua

Tasaren Kitapena eta ordinketa egitate ezargarria den udal iharduera edo zerbitzua ematean burutuko dira. Administrazioak, dena dela, kitapena eta ordainketa eskakizuna erregistratzean exijitu ahalko ditu behin behineko izaeraz eta behin betiko kuotaren kontura.

7. artikulua

Tasen kitapena eta bilketa Turtziozko Udalak burutuko du Economia eta Ogasun Sailaren kontrolpe egokiaz.

8. artikulua

Ordenantza honek xedatzen ez duenerako Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskatzailtzaz Ordenantza Fiscal Orokorra eta indarreango gainontzeko legezko xedapenak aplikatuko dira.

III. Urratze eta zehapenak

9. artikulua

Tributu urratzeen kalifikazio eta hauei dagozkien zehapenen arloan Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskatzailtzaz Ordenantza Fiscal Orokorren arabera ihardungo da.

IV. Ordenantza honen onspena eta iraupena

Odenantzaren testuak 2004.eko urtarrilaren 1etik emango ditu ondorioak eta indarrean iraungo du aldatu edo derogatzea erabaki arte.

ERANSKINA

Grabamen motak

Hileta eskubidea lortzeko behar diren baldintzak betetzen dituzten

pertsonak:

– Kolunbarioa: 90,81 euro.

– Egoiliarren nitxoa: 315,71 euro.

-Egoiliar ez direnen nitxoa: 496,12 euro.



Turtziozko Udaletxea

Udal Ogasunen gainean ekainaren 30eko 5/89 Foru Arauaren 16.1. artikuluan eta Udal Araubideko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluan ezarritakoari jarraituz, espedienteak jendaurrean ikusgai jartzen dira, iragarki hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko den egunaren biharamunetik hasita eta 30 eguneko epean. Egun horietan interesatuek espedienteak aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazio eta iradokizun guztiak Udalaren Osoko Bilkuraren aurrean aurkezteko aukera izango dute. Epea bukatzen bada erreklamaziorik aurkeztu barik, aipatu behin behineko erabaki hori behin betiko onetsizat joko da.

Turtziozen, 2003ko azaroaren 24an.—Alkatea